

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak 2016rako lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu dute

Foru Gobernuak 96.100 euro jarriko ditu Euskal Corpus Ekonomikoari nahiz Onomastika eta Toponimiari buruzko lanak finantzatzeko, bai eta Mendaur bildumarako ere

Asteazkena, 2016.eko abenduak 7

Nafarroako Gobernuak Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Euskaltzaindiaren lehendakari Andres Urrutiak hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean, eta Foru Gobernuak egindako 96.100 euroko ekarpen bat jasotzen da bertan, "Euskaltzaindiarekin Akordioa" izeneko partidaren kargura.



Hitzarmena sinatu ondorengo taldeko argazkia.

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bidez, eta Euskaltzaindiak elkarrekiko lankidetzarekin jarraitzen dute 2016an zenbait kultur proiektu egiteko. Xede horretarako, bi erakundeek hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean Nafarroako Jauregian eta, haren bidez, lankidetzarako oinarri orokorrak finkatzen dira eta bi erakundeen konpromiso-markoa arautzen.

Dokumentuak 96.100 euroko Foru Gobernuaren ekarpen bat jasotzen du, eta hura Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Euskaltzaindiaren lehendakari Andres Urrutiak izenpetu dute. Zehazki, laguntza hiru proiektu finantzatzeko erabiliko da:

1. Euskal Corpus Onomastikoari buruzko lana, eta gastuek 65.168,56 euroko aurrekontua dute.

2. Onomastika eta Toponimia lanak. Sinatutako hitzarmenak aipatzen du, Nafarroako euskarazko hizkuntz arauari nahiz toponimiari buruzko txostenak egitea Euskaltzaindiaren ardura izango dela. Arrazoi horiekin Nafarroako Gobernuak eskatutako txostenak egingo ditu erakunde horrek. Lan horietarako, 12.000 euroko aurrekontua izango da.



Ollok kontseilaria eta Andrés Urrutia.

3. MENDAUR bilduma: *Amiküze eskualdeko euskara* liburuaren argitalpena. Gastuen aurrekontua: 18.931,44 euro.

Hitzarmen hau sinatzeko unean Jarraipen Batzorde bat sortuko da, eta Euskarabideko eta Euskaltzaindiako ordezkariak osatuko dute.

Euskaltzaindiaren sortzailea

Nafarroako Foru Aldundia Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat izan zen 1918an euskara garatzeko asmoz.

Harrezkero, Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremana etengabea izan da eta, horri esker, kultur erakundearen bultzada nahiz laguntza izan duten hainbat ekimen abian jarri ahal izan dira. Gaur sinatutako hitzarmenaren bidez, Gobernuak erakunde horri urte horretara arte ematen zizkion laguntza ekonomikoekin jarraitzeko aukera izango da; horrenbestez, Euskaltzaindiak euskararen garapenari eta araudiari lotutako ikerketako nahiz dibulgazioko lanak egiten jarraitu ahalko du.